BI MILA ETA HAMAHIRUKO URTARRILAREN 30EAN ETXARRI ARANAZKO BATZARRAK EGINDAKO EZ OHIKO ETA PREMIAZKO OSOKO BILKURAREN AKTA.

ACTA DE LA SESIÓN PLENARIA EXTRAORDINARIA URGENTE CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO DE ETXARRI ARANATZ EL DÍA 30 DE ENERO DE DOS MIL TRECE

2013ko urtarrilaren 30ean, 20:00etan, Etxarri Aranazko Udalak ezohiko eta premiazko Osoko Bilkura hasi da, eta lehenengo deian osatu da, arauzko moduan deitu ondotik. JOSE IGNACIO BAKAIKOA ARISTORENA alkatea mahaiburu izan du, eta ondoko zinegotziak agertu dira:

En Etxarri-Aranatz y casa consistorial, siendo las veinte horas del día 30 de enero de dos mil trece se reúnen los concejales en sesión plenaria extraordinaria y urgente, tras haber sido convocada la misma en forma legal, bajo la presidencia de la Sra. Alcalde-Presidente: D. Jose Ignacio Bakaikoa Aristorena, y con la asistencia de los siguientes concejales:

Agertu dira / Asisten
ENEKA MAIZ ULAYAR and
IÑIGO LAZKOZ LEKUONA jn.
ARACELI ERDOZIA ANSO and.
EDURNE IGOA LIZARRAGA and
KITZ MENDIOLA BARANDALLARA and.
MARIA ARANTZAZU ARTIEDA IGOA and.
MAIDER GOÑI ERRAZKIN and
JUAN ANTONIO EXTREMERA APESTEGIA jn.

Ez dira agertu/ Excusan su asistencia
AITOR KARASATORRE MUGURUZA jn.
MIGUEL ANGEL GOÑI IXURKO jn.

Idazkaria /Secretaria
Silvia Gonzalo Etxarri

Alkateak azaldu du, deialdiaren premia dela eta, itzultzailea ezin izan dela etorri. Alkateak eta idazkariak behar diren azalpenak gazteleraz emango dituzte.

A continuación el alcalde informa que debido a la urgencia de la convocatoria no ha sido posible que asista el traductor. El Alcalde y la Secretaria darán las explicaciones precisas en castellano.

Alkateak, ezer baino lehen, bilkuraren arrazoia justifikatu du: Azken urte hauetan Sakanan langabezia gora doa. Aurreko astean lanari eta langabeziari buruz izan genituen berriak direla-eta, Sakanan ahalik eta lasterrena egin behar dira mobilizazioak. Gai larria eta oso garrantzitsua denez, bilkuran puntu bakarra izatea erabaki du.

6/1990 Foru Legearen 78. artikulua jarraikiz, Udalbatzak justifikazioa onartu du, eta, jarraian, bilkurari eman zaio hasiera

El Sr Alcalde antes de iniciar la sesión explica la razón del a celebración de una sesión extraordinaria y urgente: El paro en Sakana los últimos años está siendo cada vez mayor. Debido a las noticias de la semana

anterior relativas al trabajo y al paro en Sakana se deben realizar movilizaciones a la mayor brevedad posible. Se trata de un tema grave e importante y por lo tanto ha decidido que sea el único punto de la sesión.

De conformidad con lo establecido en el artículo 78 de la Ley Foral 6/1990 el Pleno ratifica la urgencia de la convocatoria y a continuación se da inicio a la sesión.

1.-MOZIOA: SAKANA EZ DA IXTEN! / MOCIÓN: SAKANA NO SE CIERRA!

Alkateak azaldu du Bildu taldeak mozio bat aurkeztu duela, Abian plataformak proposatua. Bildu eta Na-bai taldeek mozioaren alde daudela adierazi dute. PPko zinegotziak Sakana osoa egoera txarrean dagoela aitortu du, baina uste du mozioan puntu batzuk falta direla. Adibidez, berak uste du, horrela esan dietelako, Sakanan ez dela inbertitzen beldurra dagoelako. Beldurra desagertzen bada, lan egoera asko aldatuko dela uste du.

Bozkatu ondoren Udalbatzak onartu du mozioaren edukia (PPko zinegotziak abstenitu da)

Mozioaren testua:

SAKANA EZ DA IXTEN! UPN GURE ETORKIZUNA LAPURTZEN

Jada, krisiaren 5. urteari ekin diogu Sakanan. Egoeraren larritasuna begi bistakoa da bailara osoan: hamarnaka enpresa txiki, ertain eta handi itxita, ehundaka lanpostu suntsituta, 1800 langabetu baino gehiago (2008an baino 3 aldiz gehiago), gazteen erdia langabezian, komertzioa eta ostalaritza kinka larrian, lehendabiziko sektorea bizi irauten, hezkuntza, osasun eta zerbitzu sozialak murrizturik... Jakinda Iruñako Gobernutik ez dugula laguntzarik jasotzen, ez proposamenik, ez ekimenik gure egoera sozio ekonomikoa dinamizatu eta suspertzeko, mugitzea erabaki genuen sakandarrok eta 2011an krisi mahai biltzea lortu zen, sindikatu, alderdi, enpresari elkarte eta eragile ezberdinak adostasun garrantzitsuetara iritziz. Sakanatik Sakanarako dinamika bati ekitea erabaki zen, lan postu duhinak sortu, gure ehun ekonomikoa suspertu eta herritarron ongizatea hobetzeko. Horretarako abiapuntua adostu zen krisi mahaian:

1. Garapenerako Plan Estrategikoa egitea.
2. Sakanako garapenaz arduratuko den bertako entitatea sortzea, Sakanako Garapen Agentzia.
3. Nafar Gobernuak Sakana "Urgenteki Berrindustrializatzeko Zonaldea" deklaratzea.
4. Nafar Gobernuak lankidetza iraunkorra bermatzea Mankomunitatea eta Garapenerako Agentziarekin, markatutako helburu sozio ekonomikoak betetzen laguntzeko.
5. 2012ko aurrekontuetan Sakanan adostutako ekimen hauek finanziatzeko diru partida bat onartzea Nafarroako Legebiltzarrak.
6. Gizartearen dinamizazioa bultzatzea, herritarrak kontzientziatu eta Sakanako garapen sozio-ekonomikoan inplikatzeko.

Sakanaren esku dagoena jada martxan jartzen ari da, 1, 2 eta 6. puntuak abian dira edo jartzear daude, erakunde, herritar eta eragileen lanari esker. Nafar Gobernuari zegozkion 3, 4 eta 5. puntuetan hitz politak entzun, baina praktikan ezezko borobila jaso dugu sakandarrok. Aski da! Esateko garaia dela iruditzen zaigu. Sakana itxi nahi du UPN-k eta guk bertan lan eta bizi nahi dugu. Gure etorkizuna lapurtu nahi dute eta gure esku dago defendatzea. Guzti honegatik, udaletxe honek Nafar Gobernua konpromezu batzuk hartzera deitzen du:

1. Nafar Gobernua Sakanako garapenerako agente aktibo eta positibo bat izan behar du, lehendabiziko, bigarren eta hirugarren sektoreak suspertu eta garatzeko.
2. Berrindustrializatzeko plan urgente bat garatu behar du, Sakanako erakunde, eragile, sindikatu eta Garapen Agentziarekin batera. Lan postuen suntsiketa gelditu behar du, berriak sortzen hasteko.
3. Gure gazteen hezkuntzarako eskubidea bermatu behar du, Altsasuko Lanbide Hezkuntzan ematen diren aukerak dibertsifikatuz eta bailararen beharrei erantzunez eta gainontzeko zentruetako kalitatea bermatuz, behar den inbertsioa eginez eta langile kopurua bermatuz.

4. Bailarako herritarron osasun eta babes sozialerako eskubidea bermatu behar du, Aita Barandiaran edo Josefina Arregi bezalako zentruen kudeaketa publikoa lehenetsiz, Osasun Zentruetako funtzionamendua bermatuz bai ordutegietan, bai hedapenean, bai langileen kopuruan.
5. Sakanan, jada, ehundaka lagun dira langabezi subsidiorik gabe gelditu direnak. Baldintza duhinetan bizitzeko adinako babes sozial eta ekonomikoa bermatu behar du.
6. Sakana eta gure etorkizuna defendatzeko datorren **otsailak 28an** bertako alderdi, eragile eta sindikatuen deialdiarekin bat egiten du **GREBA OROKORRA** eta **PARLAMENTU AURRERA JOATEKO deialdiarekin.** Gainera udaletxetik konpromezua hartzen dugu, herritarrei parte hartzea errazteko, behar diren autobusak antolatzeko eta deialdia bando bitartez etxeetara hel arazteko.

……

El Sr. Alcalde explica que el grupo Bildu ha presentado una moción que les ha sido propuesta desde la plataforma ABIAN. Los grupos Bildu y Na-bai manifiestan su conformidad con el texto del a moción. El Concejal del Partido Popular reconoce que la situación en Sakana está muy mal, pero cree que en la moción faltan varios puntos que deberían tratarse. Por ejemplo, cree, porque así se lo han manifestado, que en Sakana no se invierte porque hay miedo. Si ese miedo desapareciera, la situación cambiaría.

Tras procederse a la votación el pleno acuerda aprobar el contenido de la misma. (El Concejal del Partido Popular se abstiene)

Texto de la moción:

SAKANA NO SE CIERRA! UPN ESTÁ ROBANDO NUESTRO FUTURO

En Sakana ya ha dado comienzo el 5º año de la crisis. La gravedad de la situación es evidente en todo el valle: decenas de pequeñas, medianas y grandes empresas cerradas; cientos de puestos de trabajo destruidos; más de 1800 parados/as (3 veces más que en 2008); la mitad de los jóvenes en paro; el comercio y la hostelería en serios apuros; el primer sector sobreviviendo como puede; la educación, salud y servicios sociales sufriendo continuos recortes... Sabiendo que desde el Gobierno de Navarra no recibimos ningún tipo de ayuda, propuesta, o iniciativa que conduzca a dinamizar y revitalizar nuestra situación socioeconómica, los/las sakandarras decidimos movilizarnos y, en 2011 se logró reunir una mesa de crisis, llegando a importantes acuerdos con sindicatos, partidos, asociaciones de empresarios y diversos agentes. Se decidió abordar una nueva dinámica desde Sakana y para Sakana, que sirva para crear puestos de trabajo dignos, revitalizar nuestro tejido económico y mejorar el bienestar de sus vecinos/as. Para ello se acordó un punto de partida en la mesa de crisis:

1. Realizar un Plan Estratégico de Desarrollo.
2. Crear una entidad propia que se encargue del desarrollo: la Agencia de Desarrollo de Sakana
3. Que el Gobierno de Navarra declare a Sakana "Zona de Reindustrialización Urgente "
4. Que el Gobierno de Navarra garantice una colaboración permanente con la Agencia de Desarrollo, para ayudar a cumplir con los objetivos socio económicos marcados.
5. Aprobación por parte del Parlamento de Navarra en los presupuestos de 2012 de un partida para la financiación de estas iniciativas acordadas en Sakana.
6. Impulsar la dinamización social, con el fin de concienciar a los ciudadanos/as e implicarlos/as en el desarrollo socioeconómico de Sakana.

En este marco de referencia, todo lo que concierne a Sakana, es decir, lo concretado en los puntos 1, 2 y 6 ya está en marcha o a punto de iniciarse, gracias al trabajo de las instituciones, vecinos/as y agentes. En cuanto a los puntos 3, 4 y 5, funciones que corresponden al Gobierno de Navarra, escuchamos bonitas palabras, pero en la práctica los/as sakandarras hemos recibido un no rotundo. ¡Ya basta!Creemos que es hora de hacer oír nuestra voz. UPN quiere cerrar Sakana, pero nosotros, en cambio, queremos trabajar y vivir en nuestra tierra. Quieren robarnos el futuro, y en nuestras manos está el defenderlo. Por todo ello, este ayuntamiento quiere hacer un llamamiento al Gobierno de Navarra para asumir una serie de compromisos:

1. El Gobierno de Navarra debe ser un agente activo y positivo en el desarrollo de Sakana, para conseguir la revitalización y el desarrollo de los sectores primario, secundario y terciario.
2. Debe desarrollar un plan urgente de reindustrialización, junto con las instituciones, agentes, sindicatos y Agencia de Desarrollo. Debe detener la destrucción de puestos de trabajo, y comenzar a generar nuevos empleos.

3. Debe garantizar el derecho a la educación de nuestros jóvenes, diversificando las opciones que se ofrecen en la Formación Profesional de Alsasua y respondiendo a las necesidades del valle, así como garantizando la calidad de los demás centros, realizando las inversiones precisas y garantizando el número de trabajadores/as.
4. Debe garantizar el derecho a la salud y la protección social de todos los habitantes de Sakana, priorizando la gestión pública de centros tales como Aita Barandiaran o Josefina Arregui, garantizando el funcionamiento de los Centros de Salud, tanto en horarios y extensión como en número de trabajadores/as.
5. A día de hoy ya se cuentan a cientos las personas que se han quedado sin subsidio de desempleo. Debe garantizar la suficiente cobertura social y económica para poder vivir en condiciones dignas.
6. Este Ayuntamiento se adhiere al llamamiento de HUELGA GENERAL y MARCHA al Parlamento organizado por partidos, agentes sociales y sindicatos del valle apara el 28 de febrero. Además, con el fin de facilitar la participación ciudadana, nos comprometemos a organizar los autobuses que sena necesarios y hacer llegar el llamamiento de adhesión a todas las casas.

Eta aztergaien artean beste gairik ez dagoenez, 20:15ean presidenteak, Osoko Bilkura amaitutzat emanik, idazkariarekin batera sinatu du akta, eta idazkariak horren fede ematen du.

.

Siendo las 20:15 horas, no habiendo más asuntos o temas que tratar, se levanta la sesión por parte del Alcalde Presidente, firmando el acta conmigo el Secretario que certifico